


Noaia!!!

www.noaia.com



Baxurde Txiki taldea, sasoi berria hasteko gogoz



Herritarrek dute hitza




Eman botoa!!

hamaikabat

H1!

Ez geratu etxean



Edukiontzien alde

papeleta egokia, hau!!!

HERRI GALDEKETA
CONSULTA POPULAR
2010



HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA
GESTIÓN DE RESIDUOS URBANOS

Sortzen ditugun hondakinetatik ahalik eta gehien birziklatu eta berrabilizatu da helburua. Zein baliabidea sistema nahi duzu Ugar-bilerako?

El objetivo es llegar a reciclar y reutilizar la mayor cantidad de residuos generados. ¿Cuál de los siguientes sistemas quieres para Usurbil?

Orain arteko edukiontzien sistema + 5. edukiontzia organikoarentzat

Sistema de contenedores habitual + 5º contenedor para la materia orgánica

Albisteak iruditan !!

Mendeku ItXua, Altzako Heavy Jaialdian

Mendeku ItXua taldekoek datorren kontzertua Altzako kultur etxean eskainiko dute, larunbat honetan, otsailak 27. VIII Heavy Jaia ospatuko baita bertan. Usurbilgo taldeaz gain, Brainstorm talde alemaniarra eta Euskal Herriko Krait heavy metal taldea entzuteko aukera izango da. Kontzertuarekin batera, playback lehiaketa burutuko da, eta zozketak zein opariak ere izango dira. Sarrerak 12 eurotan eskura litezke, edota 15 euroren truke jaialdi egunean bertan. Kontzertua, larunbatean arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

Jaialdia, Donostian heavy metal musika bultzatzeko ospatzen da.



KRAIT ETA BRAINSTORM TALDE ALEMANIARRAREKIN BATERA ARITUKO DIRA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

MINTZALAGUN EKIMENA MARTXAN **10. OR.**

HASTERA DOA SOINURBIL **12. OR.**

GALDEKETA LOTESLEA IZANGO DA **14. OR.**

BAXURDE TXIKI TALDEA, GOGOBIKIZ **18. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Otar-Goxo
 ELIKAGAIAK

Zubiaurrenea, nº2
 943 36 55 81
 20170 Usurbil

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
 izagirreletrizitate@hotmail.com
 Goiz argi etxea 37, KALEZAR

J.ORBEGOZO

ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 · 659602789



NEREA ZINKUNEGI

Oh Marilyn, Marilyn!!

Idatzi honi jarritako izenburuak agian ez du inolako zerikusirik izango bertan agertzen den edukiarekin. Baina, zure arreta eskuratu besterik ez da izenburu horren funtsa, irakurtzen jarrai dezazun. Zerbait esan nahi eta aitzakiarik behar ez dudala iruditzen zaidanez, zuzenean helduko diot gaiari; atez ateko zabor bilketa.

Arazo potoloa dabilkigu eskuartean, fregadera azpian, plastikozko poltsa artean, etxeko txoko batean eta beste batean... Zaborra sortzen zaigu nonahi, edonon, edonola, nahi gabe eta... nahita. Ez noa jarraitzera bide honetatik, datuak hor daude (a ze esaldi ofiziala!). Informazioa handik eta hemendik jaso dugu, jaso dezakegu, jaso nahi badugu...

Eta ondorioak atera, kontuak atera, hondakinak biltezeko moduak eta hauen trataerak zerikusirik ba ote duten edo ez, aparteko gauzak balira bezala!

Kristoren marroia datorkigu, *fuera txorradas!* Zeinek nahi du erraustegi bat etxe aldamenean?

Hiru tanto enbido jo ditu Udalak atez atekoarekin, eta apustu erabakigarria izan ez arren partida honetan, etekinak ematen ari da, ttanttoa bildu eta ttanttoa bildu. Datu objektiboak hor daude, berriz ere, kontuak atera!

Otsailaren 21a da, sekulako haizea dabil gaurkoan, zakar horietakoa, eta pentsatu ere ez dut egin nahi Zubietako horretan erraustegia bagenu bertatik isuritako ke osagarrien paraderoaz; attaren baratzeko azaloretan, letxuak, tomateak, tipulak, kalabazak, piperrak... Inguruko larretako txekorrak, zaldiak, ardiak... *En fin!* Guzti horrek dakarrenarekin!

Usurbilen egiten ari garena iraultza positiboa da, datu objektiboak hor daude, kontuak atera, oster! Iraultza handienak txikitik hasten dira, oso gertutik, etxetik, nor beragandik, alegia.

Datorren asteburuan partida irabazteko parada daukagu, nik argi daukat, atez atekoa, dudipe!

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Ugaitz Agirre - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !

Herri kontsulta

Pasa berri den urte honetan jarri dugu martxan atez ateko hondakinen bilketa. Dagoeneko hasierako zalantzak uxatu eta ohiturak aldatuak ditugu herritar gehienok. Guk geuk sortutako hondakinek, gure osasunean eta ingurumenean dituzten ondorioez konturaturik, alternatiba posiblea dela erakusteaz gain ondorengoentzat onura besterik ez dakarrela ikusi dugu.

Hondakinen bilketa eredu honek emaitza paregabeak utzi dizkigu portzentaje moduan, baina alde positibo

bat nabarmendu nahi genuke beste guztien artean. Usurbildar askorentzat lanpostu berriak sortu dira eta langileontzat oso zaila izan den urte batean izan da gainera. Krisi ekonomikoak eraginda edota berau aitzakia moduan hartuta lanpostu ugari suntsitu dituzte gure herriko lantegietan (Ingemar, Luzuriaga, Akaba, Michelin...). Herritar askok pairatu ditu krisi ekonomikoak ekarri dizkigun ondorioak (EREak, prekarietatea, kaleratzeak...).

Hau kontutan harturik, otsailaren 27

eta 28an egingo den herri galdeketaren aurrean LABek gure herriaren etorkizunaren alde dauden langile guztiei dei berezia egin nahi die kontsultan parte har dezaten eta argi eta garbi esan dezaten:

Herritarren osasuna eta ingurumena zaintzeari BAI.

Lanpostuak sortzen dituen bilketari BAI.

Atez Ateko Bilketari BAI.

Usurbilgo LAB

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: martxoak 5. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 1.

Ezker Batuak atez atekoaren alde bozkatzea eskatu du

Otsailaren 23an Usurbilen bisitan izan zen Ezker Batuako ordezkari taldea eta asteburuan burutuko den herri galdeketari begira, herritarrak atez atekoaren alde bozkatzea deitu zituen. Koordinatzaile Mikel Aranak adierazi zuenez, "atez atekoa sistema eraginkor eta hobereena da". Are gehiago, gaineratu zuenez, "begi bisitan gelditzen da erraustegia saihestu daitekeela".

Erraustegia alboratu eta atez ateko bilketa Gipuzkoa osora hedatzea galdegin zuen. Horretarako, erakundeek alternatibak lantzea ezinbestekotzat jo zuen.

"Erakundeek beste sistema batzuen alde benetako apustua egin dezatela, birziklapen, berrerabilpen eta honda-



EZKER BATUAKO KIDEAK ASTEARTEAN, USURBILGO UDALETXE AURREAN; IMANOL AZPIROTZ UDAL ZINEGOTZIAREKIN BATERA.

kinak gutxitzearen alde", adierazi zuen Aranak.

Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaile eta Urnietako alkate Mikel Izagirrek datozen asteotan atez ateko bilketa sistema euren udalerrian abiatu edo ez eztabaidatzekoak direla iragarri zuen.

Ika-mika !!

Hitza eta erabakia gurea da

Zuk eta zu bezalako usurbildar askok atez atekoaren proiektuari emandako konfiantzari esker, urte haueetan guztietan lan eta lan ari gara gu denon eguneroko bizimodua hobetu asmoz.

Hondakinen arazoari aurre egiteko atez ateko bilketa jarri genuen martxan, elkarlanean, lan handiz, baina harrotasun itzelaz. Lehenak izan gara Euskal Herrian arazoari ganoraz heltzen eta lehenak arazoa konpontzen. %28 birziklatze mailan geunden iaz, aurten %82an gaude. Ateratzen ditugun hondakinen garbitasunaz harrিতuta ditugu enpresa hartzaileak, eta zuk etxean izugarri ongi egiten duzulako da guztia. Ikusgarria da egindakoa, harro egoteko modukoa. Gainerako herriak %30 birziklatzera ezin iritsi ari dira, gu ez bezala,

zaborra sortu eta sortu.

Baina datuak ikusgarriak badira ere, adierazten dutena da garrantzitsuagoa. Zuk eta guk, denok erakusten ari gara atez atekoarekin etorkizun garbi eta osasuntsua posible dela, gure osasunarekin jolastu gabe, errauste planta toxikoak jarri gabe posible dela etorkizun oparoa. Sinetsarazi nahi digute errauste plantak beharrezkoak direla. Gezurra. Usurbildarrok egunero erakusten ari gaitzaizkio Diputazioari gezurretan ari dela. Diputazioak ezin du gure osasuna arriskuan jarri, gure seme-alaben osasuna kalteatu. Gure etorkizuna zalantzan jarri. Ez duelako eskubiderik eta ez delako egin beharrik.

Atez atekoarekin usurbildarrok erakusten ari gara birziklatzea dela bidea, ez lehengaiak erretzea. Erakusten ari gara

herritarrok konpon ditzakegula arazoak, ez dugula administrazio boteretsu eta inposatzaileen beharrik.

Baina horretarako otsailaren 27an eta 28an gure iritzia eman behar dugu. Diputazioak nahi du 27an eta 28an etxean, mutu gelditzea. Atez atekoa ez babestea. Diputazioak nahi du eskuak libre izatea errauste planta toxikoa jartzeko. Baina hitza eta erabakia gurea da, etorkizuna gurea da. Horregatik 27an eta 28an ozen esango dugu arazoak konpontzen dakigula, arazoak konpontzeko orduan parte hartu nahi dugula, eta atez atekoa dela bidea. Herritarrok etorkizun garbi eta osasuntsua nahi dugula. Hitza eta erabakia gurea da. Etorkizuna gurea da. Etorkizuna atez atekoa da.

Usurbilgo ezker abertzalea

Astelehenean, odol ematea

Martxoaren 1ean astelehena, Modola emateko aukera berri bat. Beti bezala, herriko ambulatorioan, 19:00etatik 21:00etara.

18 urtetik 66 urte artean daude eman dezakete odola. "Zalantzarik, kezkarik bada, emaldira etortzen diren erizain eta medikuak argituko dituzte denak. Baldintza txiki batzuk bete behar dira, osasun erakundeek ezarritakoak. Ez utzi biharko, gaur egitea daukaguna", dio Odol Emaileen Elkarteak igorri digun oharrak.

Kulturako Aholku batzarra, martxoak 3

Kulturako Aholku Batzarra martxoaren 3an asteazkena bilduko da. 18:30etik aurrera egingo da batzarra, udaletxeko pleno aretoan.

Juantxo Lopez Uralde, Greenpeace-eko burua

“Atez atekoa jarraitu beharreko bidea da”

Greenpeace-Espainiako buru Juantxo Lopez Uraldek atez ateko bilketa sistema ezagutu zuen otsailaren 22an, Udala eta Mankomunitateko ordezkarien eskutik. Emaitza ikusgarriak dituen sistema eraginkor, berritzaile eta garbi gisa deskribatu zuen atez atekoa. Asteburuko galdeketari begira, herritarrak bozkatzera deitu zituen.

Eraginkortasun hitzarekin definitu zuen atez ateko bilketa sistema Greenpeace-Espainiako buru Juantxo Lopez Uraldek, otsailaren 22an herrian indarrean dagoen bilketa sistema ezagutzeko Usurbilen burutu zuen bisitaldian. Atez atekoarekin lortu diren emaitzak ikusgarritzat jo zituen. Azpimarratu zuen beste alderdia sistema bera izan zen, bere esanetan, “sistemaren garbitasuna eta estetikoki diskretua izatea”. Atez atekoa etorkizuneko alternatibatzat jo zuen: “Esperientzia berritzaile eta interesgarri eta garbia da, jarraitu beharreko bidea”. Errausketaren alde zeudenez gatik urteetan beste bilketa aukerarik ez zela entzun ostean, Usurbilen sistema desberdin eta berritzaile bat ezagutzeko zortea izan zuela agertu zuen Lopez Uraldek.

Bilgunearen ekarpena

Usurbilgo bisitaldian, egungo bilketa sistemaren inguruko informazioa jaso zuen Lopez Uraldek; hondakin zatiak non uzten diren, bilketa zer modutan egiten den, atez atekoaren emaitzak... Bidelagun izan zituen Xabier Mikel Errekondo alkatea, San Marko Mankomunitateko lehendakari-orde eta ingurumen zinegotzi Imanol Azpirotz edota atez ateko bilketa martxan jartzeko lanean ari diren Hernani eta Oiartzungo udaletako alkateak. Ibilbidean zehar, Atez Ate Dudipe bilguneako kide bat ere hurbildu zitzaion Greenpeace taldeko ordezkariari.



JUANTXO LOPEZ URALDE ASTELEHENEAN IZAN ZEN USURBILLEN, ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA EZAGUTZEN.

kariari. Europa mailako atez ateko bilketa buruzko informazioa jasotzen duen esku orria eman zion. Bide batez, bilgunearen berri eman edota Atez Ate Dudipek azken asteotan burutu dituen ekintzei buruzko informazioa helarazi zion.

LOPEZ URALDE

“Interesgarria da baita, herritarrei gai honi buruz galdetzea”

Galdeketa, herritarren balorazioa ezagutzeko

Lopez Uraldek asteburu honetan burutuko den herri-galdeketa bozkatzera deitu zituen herritarrak. Galdeketa herritarren iritzia neurtzeko termometro gisa hartzen du Uraldek. “Interesgarria da baita, herritarrei gai honi buruz galdetzea, haiek benetan egiten duten balorazioa ikusteko”, adierazi zuen Greenpeace taldeko ordezkariak.

Bisitaldiaren amaieran gaineratu zuenez, aspalditik eskatu ohi dutena bete beharko litzateke; ingurumen

alorreko hainbat gairen inguruan herritarrei iritzia eskatzea.

Elkarlanerako gonbita luzatu zuen Udalak

Adierazpenen tartean, Foru Aldundia eta udalen artean elkarlanerako deia burutu zuen Xabier Mikel Errekondo alkatea. “Elkarrekin benetako eta zentzuzko irtenbidea bila diezaiogun, batez ere osasun eta ingurumenarekin lotutako irtenbide bat”, adierazi zuen Errekondok. Bere esanetan, erraustek ez baitu zentzurik gaika bildu badaiteke. Aldundiari errauste programarentzat sei urteko moratoria eskatu duela gogorarazi zien hedabideei. Mankomunitatera eta herrialde osora atez atekoa zabaltzeko laguntza eskaini zuen bestalde, San Marko Mankomunitateko lehendakari Imanol Azpirotzek. Gogorarazi zuen moduan, “arazo handia dugu baina guztion artean dugu konponbidea”.

Joaquim Ferrer, Vilassar de Mar-eko alkatea

“Edukiontziekin bizi-kalitate hobea dugu”

Bost urte lehenago abiatutako atez ateko bilketa sistematik bost edukiontzien sistemara aldatzeko pausoa eman zuen 2008an, Herrialde Katalanetako Vilassar de Mar udalerrriak. H1! Usurbil eta Herri Plataformak gonbidatuta, egun bertako alkate den Joaquim Ferrerrek euren esperientziaren berri eman zuen otsailaren 22an, Atxega jauregian eskaini zuten prentsaurrekoan.

Bost edukiontzien sistemarekin daudenetik “bizi kalitate hobea dutela” zioen egungo alkate Joaquim Ferrerrek (CIU), H1! Usurbil eta Herri Plataformako ordezkariak gonbidatuta eta haiek batera, otsailaren 22an Atxega jauregian eskaini zuten prentsaurrekoan.

JOAQUIM FERRER

“Hondakinak biltzeko herritarrei bizi ohiturak aldatzea gehiegi eskatzea da”

Alderdi sozialistak eta Esquerra Republicanak osatutako udal gobernu taldeak abiatu zuen atez ateko bilketa sistema Vilassar de Mar (Herrialde Katalanek) udalerrian. 2003ko udaberrian esperientzia pilotu gisa martxan jarri, eta 2004rako udalerrri osora zabaldu zuten.

Emaitzak ikusgarriak izan zirela onartu zuen CIU-ko egungo alkateak. Baina bere esanetan, “zenbakiak baino ez dira, atzean ezinezona dago”. Atez ateko bilketak herritarren artean tentsioa eragin zuela adierazi zuen Ferrerrek, bere ustez, birziklatzea ez delako lan erraza, adineko herritarrentzat batez ere. “Hondakinak biltzeko herritarrei bizi ohiturak aldatzea gehiegi eskatzea da”, adierazi zuen, gaineratuz, edukiontzien sistemarekin errazagoa dela hondakinak uztea. Bestalde, herritarren ontziak ireki eta begiratzeko norainoko eskubidea dagoen zalantzan jartzen zuen.



ASTELEHEN HONETAN USURBILEN IZAN DA VILASSAR DE MAR-eko ALKATEA. PRENTSAURREKOA ESKAINI ZUEN ATXEGA JAUREGIAN.

Ekonomikoki ere ez zen bideragarria atez atekoa, bere esanetan, udal baliabide gehiegi bideratu zirelako aipatu hondakinaren kudeaketara. Eta udalerria zikinagoa zegoen, alkatearen arabera.

Atez atekoaren aurka, bidelagunik ez

2003ko udal hauteskundeetan CIU alderdiak jaso zuen bozka gehien Vilassar de Mar udalerrian, baina PSC eta ERC taldeek osatu zuten gobernu taldea. Bi udal taldeok jarri zuten martxan atez ateko bilketa sistema. 2007ko udal hauteskundeak ere irabazi zituen CIU-k, eta ordutik gobernu taldean dira. Legegintzaldi honetan alboratu zuten hain zuzen, atez ateko bilketa sistema. Egungo alkatearen esanetan, hondakinaren gaian erakutsitako jarrerak “hauteskundeak irabazten lagundu ziguten”. Halere, atez atekoaren aurkako jarrera argia agertu zuten udal ordezkari bakarrak izan .

Edukiontziekin, %45 inguruko birziklatze maila

Atez ateko bilketatik edukiontzien sistemara igaro arren, birziklatze mailan aldaketa nabarmenik ez dela egon kontatu zuen Vilassar de Mar udalerriko alkateak. Birziklatze maila, %43-45 ingurukoa izaten jarraitzen duela aipatu

zuen eta egun, atez atekoarekin baino 500.000 tona gehiago biltzen direla (%7 gehiago), bere hitzetan, “atez atekoarekin beste udalerrietara doan zaborragatik”. Bizi-kalitatean irabazi dutela ere gaineratu zuen.

H1! Usurbil alderdiak 5 edukiontzien aldeko apostua berretsi du

Herritarrentzat erosoagoa, ekonomikoki jasangarriagoa, emaitza berdintsuak lortu eta tentsio soziala gutxitzen duelako, bost edukiontzien sistemaren aldeko apustua berretsi zuen H1! Usurbileko ordezkari Luismari Ormaetxeak, otsailaren 22an Atxega jauregian eskaini zuten prentsaurrekoan. Herri galdeketa hiru erantzunen aukera ematea, bere esanetan, “boto zatiketa bat egiteko sortu da”. Urtebeteren ostean, egungo egoerari buelta emateko aukera asteburu honetan dagoela ere adierazi zuen. Gezurtatu egin zituen udalak atez ateko bilketaren inguruan kalderatu izan dituen datuak. Aipatu sistemarekin lortu den birziklatze maila erreala, bere esanetan, %46koa da.

Jende ugari bildu zen

Atez Ate Dudipe Bilgunearen ekitaldi nagusian

Atez Ate Dudipe Bilguneak pasa den igandean egin zuen herri galdeketa kanpainako ekitaldi nagusia. Herriko musikari batzuk kanpainarako espreski egindako kantua aurkeztu zuten. Eta Txerriki antzerki taldeko kideek antzezpen bat egin zuten Mikel Laboa plazan.

Ekitaldiak frontoian izan zuen jarraipena. Atez Ate Dudipe Bilguneok manifestu bat irakurri zuten. Alaitz Aizpurua Usurbil Bizirikeko kideak adierazi zuenez, "gure eskuetan dago irtenbidea eta eguneroko ahalegin txiki-ekin konponduko dugu".

"Ez dugu hutsik egingo"

Hala nola, "ez dugula erraustegirik nahi eta behar. Eguneroko eragiketa txiki batekin, atez ate posible dela, ahal dela, egiten dugula eta egiten jarraitu nahi dugula".

Joxe Mari Irazusta atez ateko bilketaren Jarraipen Batzordeko kide da eta igandeko ekitaldian adierazi zuenez, "datorren asteburuan ez dugu hutsik egingo, joan zen urteko martxoan abian jarri genuen trenari beste bufada bat emango diogu, are eta indartsuago jarrai dezan. Han izango gara, atez atekoaren alde bozka ematen, orain arte lortu ditugun zenbaki bikainak bototan ere



ATEZ ATE DUDIPE BILGUNEAN ORDEZKATUTA DAUDEN TALDE GUZTIAK MANIFESTU BAT IRAKURRI ZUTEN EKITALDI AMAIERAN.

konta ditzagun".

"Vilassar salbuespena da"

Vilassar de Mar-eko alkatea izan da aste honetan Usurbilen. Honen harira, Atez Ate Dudipe Bilguneak prentsa ohar bat eman zuen argitara. Bilgunearen esanetan, "Vilassar salbuespena da Katalunian eta mundu osoan. Atez atekoak ondo funtzionatzen du Katalunian, Balear uhartean, Italian, AEBetan eta mundu osoan".

Gaur egun, "Vilassarren, bosgarren edukiontzia eta guzti, emaitza ezin kaxkarragoak lortzen dituzte atez atekoarekin lortzen zitzutenekin alderatuta",

gaineratu nahi du Bilguneak.

Urruti joan gabe, Gipuzkoan ere bosgarren edukiontzia emaitzen aldetik porrot hutsa izan dela dio Bilguneak: "Aretxabaleta, Azkoitia, Azpeitia, Zumaia, Zarautz eta Amara Berrin sekulako kanpainak egin arren, biztanleen %14k besterik ez du parte hartu. Aretxabaleta Usurbilen antzeko biztanle kopurua duen herria da eta hilean 5.000 kilo organiko biltzen ari da, Usurbilen 40.000 kilo biltzen diren bitartean".

Azkenik, Usurbilen egindako ahalegina nabarmendu nahi du Bilguneak: "urrats handiak egin ditugu Usurbilen eta harro egoteko arrazoiak ditugu".



iarrieta

ATEZ ATE BILGUNEAREN KANPAINAK BADU BERE KANTU PROPIOA. HERRIKO MUSIKARI BATZUK KONPOSATU DUTEN KANTUAK GIROTU ZUTEN PASA DEN IGANDEKO KANPAINA-EKITALDIA.



TXERRIKI ANTZERKI TALDEKOEK ANTZEZPEN UMORETSUA EGIN ZUTEN MIKEL LABOA PLAZAN. ONDO BIRZIKLATZEAREN GARRANTZIA AZPIMARRATU NAHI IZAN ZUTEN.

Bai atez atekoari



- Errefusa asko gutxitzen delako
- Kontzientzia gehiago hartzen dugulako
- Gehiago birziklatzen delako
- Hondakin gehiago konpostatzen delako
- Ingurumena eguneroko kontua delako
- Osasuna errespetatzen duelako
- Erraz egiten ari garelako
- ...



www.aralar.net

aralar



Mintzalagun

Euskara mintzamen eta lagun arterako lanabes

Lasarte-Oriako Jalgin astean behin mahai baten bueltan esertzen dira, Maite Azpiorea, Ana Mediavilla eta Eva Molano. Kafetxoa hartuta, tertulian aritzen dira lagun arte ederrean, hori bai euskaraz. Lehenengoa euskaldun zaharraren paperean, Ana eta Eva berriz euskaldun berriak dira. Hirurak Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak euskararen erabilera bultzatzeko koordinatzen duen Mintzalagun egitasmoan parte hartzen ari dira. Usurbilen martxan jartzear den ekimena beraz, gertutik eza gutzen dute.

NOAUA! Zergatik hasi zineten parte hartzen ekimen honetan?

Eva Molano. Batetik, hemen bizi garelako. Bestalde, bi haur ditut ikastolan. Oso garrantzitsua da niretzat ere, erizaina bainaiz. Ospitalean oposaketetan puntuazioa izateko perfila lortuko banu, oso ondo egongo litzateke.

Ana Mediavilla. Aukera polita da, ikasi duguna praktikatzeko eta beste aukera bat da euskaraz hitz egiteko. Oso gustura nago.

Maite Azpiorea. Nahiz euskaldun zaharra izan, duela bi urte joan nintzen euskaltegira. Orduan komentatu zidaten aukera hor zegoela. Aurreko esperientzia oso ona izan zenez, aurten beste aukera bat nahi nuen, norbaiti laguntza pixka bat emateko. Oso gustura nabil.

N. Astean behin biltzen zarete. Zertaz hitz egiten duzue?

E. M. Ostiralero beti Jalgin biltzen gara. Denetarik hitz egiten dugu; haurren gaia beti ateratzen da. Eguraldia, lana... Gogotsu etortzen naiz. Batez ere ostirala niretzat etxea garbitzeko eguna izaten baita. Lasaitzeko primeran dator kit, une hobereana da.

M. A. Niretzat beste aukera bat da, lasai kafe bat hartzeko. Bestela, norma-lean batetik bestera korrika ibiltzen



EUSKALDUNAK ETA EUSKALDUN BERRIAK ELKARTZEKO BIDEA EMATEN DU MINTZALAGUN PROIEKTUAK. HONI ESKER, EUSKALDUN BERRIAK EUSKARAZ ARITZEKO AUKERA APARTA DUTE.

naiz. Neure unea da ordu hau. Beti dago zerbait hitz egiteko. Oso erraza da eta gustukoa dut gainera.

A. M. Eva eta ni lehenik elkar ezagutzen gara, baina Maite ez genuen ezagutzen. Orain ordea lagunaren moduan elkartzen gara, eta kafetxo bat hartzen, edozeri buruz hitz egiten dugu.

ANA MEDIAVILLA

“Lagunen moduan elkartzen gara, eta kafetxo bat hartzen, edozeri buruz hitz egiten dugu”

N. Euskaldun zahar eta berrien artean, zer moduz moldatzen zarete komunikatzerakoan?

E. M. Nire maila baxuagoa da eta nabari da. Baina egia esan, arazorik gabe hitz egiten dugu. Elkarrizketa naturala da. Ezagutzen garen neurrian, geroz eta hobeto moldatzen gara.

A. M. Zalantzaren bat badugu,

hemen dugu Maite, erreferente moduan zalantzak argitzeko.

M. A. Hasiera batean urduritasuna nabari zen, baina orain askoz lasaiago gaude. Beraiek ere niri asko laguntzen didate, aditzekin ez bainaiz oso trebea. Denok ikasten dugu.

N. Zer da euskaldun berriek euskaldun zaharretaz ikasi dezaketena eta alderantziz?

M. A. Hiztegi aldetik gauza asko berriak dira. Niretzat oso lagungarria izaten ari da. Beti ikasten duzu zerbait berria, nahiz euskaldun zaharra izan. Eta niretzat zaila bada, pentsatu ere ez dut egin nahi, zer nolako ahalegina egiten duten euskaldun berriek. Hori kontuan izateko gauza da. Mintzalagunak hitz egiteko beste lasaitasuna ematen du.

E. M. Kaleko hizkuntza ikasten ari gara Maiterekin. Gu euskaltegira joaten gara eta batuan hitz egiten dugu, hemen bezala. Baina esamolde batzuk, eta jarioasuna ere hartzen ari gara. Kaleko hizkera desberdina da eta guk hori ezagutu nahi dugu.

Lasarte-Orian, 80 partaide ditu Mintzalagunek

Duela hamabi urtetik martxan da Ttakun kultur elkartearen eskutik, Mintzalagun egitasmoa Lasarte-Orian. Euskaraz hitz egitea helburu baino, bizitzarako tresna bihurtzea, horixe da parte hartzaileen artean eragileek barneratu nahi duten ideia.

Ikastaroak, irteerak, tailerrak, afa-riak... Denetarik ekintzetan parte hartzeko aukera dute, Lasarte-Oriako Ttakun kultur elkarteak antolatutako Mintzalagun ekimenean parte hartzen duten lagunek. Euskararen erabilera bultzatzea da euren erronka nagusia, baina euskara bera jomuga izan gabe. “Ekimeneko helburuak ezin du izan euskaraz hitz egitea, tresna bat baizik zure bizitzarako”, adierazi du Mintzalagun egitasmoko koordinatzaile Mailu Arrutik.



MINTZALAGUN EGITASMOAREN AURKEZPENA MARTXOAREN 11N EGINGO DA, 19:00ETAN ARTZABALEN.

bora eta dirua inbertitu eta ahalegin izugarria egin dute, gero euskaraz bizi ahal izateko. Horregatik ardura badugu”, dio egitasmoko koordinatzaileak.

Asegarria partaideentzat

Ardura beteta gainera, zer irabazia ere izango du euskaldun zaharrak, berriekin batera. Arrutik ekimenaren aberastasuna aipatzen du alde baikorren artean. Batetik parte hartzaile bakoitzarentzat asegarria da euskalgintzara egiten duten ekarpenagatik, euskaraz hitz egiteko sortutako taldearentzat bezala. Arrutik gogorarazten duenez, “talde batzuk gainera lagun talde bihurtu dira”.

Mintzalagun, izena ematea zabalik

Udalak, Etumeta euskaltegiak eta NOAUA!-k antolatutako Usurbilgo Mintzalagun egitasmoan parte hartzeko izen ematea zabaldu da. Informazio gehiago eta izen ematea: 943 372 001 eta 943 360 321 telefono zenbakietan edota usurbil@ae.org posta elektronikoa. Baita Etumeta-AEK euskaltegian edo NOAUA!n ere.

“Usurbilen edozein lekutan hitz egin dezakezu euskaraz”

Mintzalagun proiektuak Solaskide izena hartu du Lasarte-Orian. Bertan aritzen dira Eva Molano eta Ana Mediavilla, gure solaskideak.

NOAUA! Mintzalagun zer modutan zaizue lagungarria eguneroko bizitzan, kalean?

Eva Molano. Trabak izaten ditut, baina nire trabak neure buruan daude. Asko galdu dut, sei hilabete euskaraz hitz egin gabe egon ostean. Horregatik, ikasketa prozesua ez etetea oso garrantzitsua da. Baina lortuko dut. Kaleko jendeak lagutzen gaitu.

Ana Mediavilla. Etxean euskaraz hitz egiten dut, senarra euskaldun zaharra baita. Seme-alabekin ere hitz egiten dut. Baina egia da, oso berritsua naizenez eta errazagoa denez, batzuetan erdarara jotzen dut. Gehiegi batzuetan. Etxetik kanpo, Usurbilen nahi baduzu edozein lekutan hitz egin dezakezu euskaraz. Dendetan ez dut arazorik, euskaraz hitz egiteko. Ohitura kontua da, eta zeure harremanak nola dituzun eginak. Baina hori guztia aldatzea, txorakeria dirudi baina zaila da.

N. Usurbildarrek zergatik parte hartu behar lukete Mintzalagun ekimenean?

M. A. Animatuko nituzke, ordubetxo bat ez da ezer. Lagun talde bat egiteko modu bat da. Proba dezatela. Edozein adineko herritarrak lagundu dezake. Oso ondo pasa eta asko ikasiko du.

A. M. Euskaldun berriok, lehen komentatu dugun traba hori gainditzeko. Euskaldun zaharrek borondate handia izan behar dute. Beraiek esaten dute gurekin asko ikasten dutela, baina nik uste dut guk gehiago jasotzen dugula.

E. M. Niretzat adibidez beharrezkoa da.

MINTZALAGUN EGITASMOA

“Euskaldunok euskaldun berriei zor diegu, errespetu hori”

Arrakasta badu berez ekimen honek. Bere esanetan, “ekimen bakarretakoa izango da propagandarik egin gabe, jendea datorrena”. Beharra bada, udalerrri euskaldunetan ere, euskararen ezagutza handia baita, ez hainbeste ordea erabilera. “Herri euskaldun txiki askotan, erdarazko harreman asko daude. Usurbilen jende euskalduna bada, erdaraz bizi dena”, adierazi du Arrutik.

Euskaldunon ardura

Euskaldunok euskal hiztun berriekin zer eginik badugula aipatzen du Mintzalagun egitasmoko koordinatzaileak. “Euskaldunok euskaldun berriei zor diegu, errespetu hori. Beraiek den-

Soinurbil zikloarekin

musikaz blai dator martxoko lehen astea

Zumarte musika eskolaren eskutik, datorren astean ospatuko da Soinurbil Musika Astearen seigarren edizioa. Musika ardatz hartuta, antzerkiak, abesbatza taldeak, musika banda, musika taldeak... Denetarik izango da musikaz blaituko den martxoko lehen astean. Hona hemen aurtengo proposamenak.

Agerre Teatroak eta "Mi cabeza que habla" konpainiek, musika, dantza, txo-txongiloak, antzerkia... uztartuko dituzten ikuskizuna, haur kabareta prestatu dute eta Sutegin eskainiko da, Soinurbilen aurtengo estreinaldian. Bi neskaiten arteko adiskidetasuna, handitze prozesua eta desberdinak izateko aukerari buruzkoa da emanaldia. Sarrerak alde aurretik salgai 2 eurotan Oiaro kiroldegian, edo egunean bertan 4 eurotan leihatilan. 5 urtetik gorako haurrei zuzendua.

Zumartekoak azkoitiarrekin

Urtero elkar trukaketa saioa burutzen dute Zumarte musika eskolako kideek, beste eskola batekin, aurten azkoitiarrekin. Zumarteko ordezkaritza, piano, gitarra eta trikitixa taldeek osatuko dute. Azkoititik Bizkargi txiki eta gaztetxoan dantza taldeak, eta abesbatza etorriko dira.

SOINURBIL, TOPAGUNE

"Azkoitia eta Usurbilgo ikasleak batera arituko dira martxoaren 3an Sutegin"

Publikoa, gai jartzaile

Bertsolaritzan bezala, musika munduan ere inprobisatu litekeela erakutsi nahi dute Ainhoa Ansa (ahotsa eta gitarra) eta Jagoba Astiazaranek (ahotsa eta pianoa). Frogatzeko Sutegira datoz martxoaren 4an, "Piano bat bertsotan. Euskal kanta zahar eta berriak herriaren ahotan" izeneko emanaldiarekin.



MUSIKAK ETA DANTZAK, BIAK BAT EGITEN DUTE ASTEARTEAN

SUTEGIN IZANGO DEN HAUR KABARETEAN.

Publikoak entzun nahi dituen abestiak eskatu eta eskarien artean zozketa bidez, inprobisatuz, musikari bikoteak ikusentzuleek nahi izandakoa joko dute.

Haurrak kantuan

Gaztetxoan artean kantu-zaletasuna bultzatzeko, Euskal Kantuzaleen Elkarteak urtero haur kantarien jaialdiak antolatzen ditu. Saiotako bat aurtengoa Sutegin ospatuko da. Ekitaldian, Gipuzkoako ikastetxe eta musika eskolako 6-15 urte arteko abeslariak parte hartuko dute. Sarrerak egunean bertan jarriko dira salgai; 3 eurotan gaztetxo eta bazkideentzat, 5 eurotan helduentzat.

Hondarribiko Banda

Sutegitik kanpo ere kalera eramango dute antolatzailerak Soinurbil ekimena. Kaleak girotzera etorriko da Hondarribiko Hiria Musika Banda martxoaren 7an.

Folk musika, Hariots taldearekin

Jatorri folk desberdinetako musika entzuteko aukera izango da Sutegin, martxoaren 5ean. Euskal, irlandar edota argentinarrak doinuak tartekatuko dira.

Soinurbil, egunez egun

Martxoak 2, asteartea

18:00 Haur kabareta Sutegin.

Martxoak 3, asteazkena

18:30 Azkoitiko Musika Eskolarekin trukaketa Sutegin.

Martxoak 4, osteguna

19:00 "Piano bat bertsotan" emanaldia Sutegin.

Martxoak 5, ostirala

19:00 "Hariots" emanaldia Sutegin.

Martxoak 6, larunbata

18:00 Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdia Sutegin.

Martxoak 7, igandea

11:30 Hondarribiko Bandarekin kalejira.

12:30 Bandaren emanaldia frontoian.

Martxoak 24, asteazkena

18:00 Organo erakustaldi pedagogikoa Salbatore Elizan.

Antolatzailerak: Zumarte Musika Eskola eta Udala.


Usurbil

gure etxea. gure herria. gure planeta.



HARITZ HARREGUY

"Hondakin gubxiago nola sortu pentsatzen hasita nago, atez atekoari esker."



INÉS MARTÍNEZ

"Gure seme alabeei zer planeta utzi behar diegu? Horregatik merezi du."



INTZA ALTUNA

"Beste ezereen aurretik, gure osasuna dagoelako"



PAKI IRADI

"Osasuna eta naturaren alde, norberak bere aletxoak jartzeko aukera ematen du atez atekoak."



RAKEL ULLATE

"Gaitz eragileari uko egiten badiogu, askozaz hobea."



JEXUX AGIRRESAROBE

"Arduraren alde nagoelako."



DAVID ILLARRAMENDI

"Birziklagarria den guztia, bereiztuta jasotzea posibilitatzen duelako."



OLATZ DE MIGUEL

"Denbora gutxian lortutako emaitzak ikusi besterik ez dago aldeko arrazoi nahikoak izateko."



ALEX TELLO

"Non eta nola bizi garen kontura gaitzen. Ekologistak izaten ikasteko norbanakoaren ebxetik hastea ezinbestekoa da."



HORACIO ARGARATE

"Hazkunde eroak ez gaitu lagunduko, aldiz, naturaren zaintza esker onekoa da."



JOAKIN PAGOLA

"Hondakinen ardura, norbere kontura."



M^o ÁNGELES ARRUTI

"Geroko usurbildarren mesederako bada ere, gure esku dagoen ahalegina egiteak, pena merezi duelako"



ATEZ ATE DUDIPE! BILGUNEA

www.dudipe.info



Herri galdeketa, otsailak 27 - otsailak 28

Herritarrek dute azken hitza

Otsailaren 25a amaitzearekin batera itxiko da herri-galdeketa lotutako azken bi asteotarako deitua zegoen kanpaina. Orain, herritarren txanda da. Asteburuan, larunbat eta igande egun osoz bost gune desberdinetan jarrita egongo diren sei mahaietan hondakinen kudeaketari buruzko iritzia bozka bidez eman ahal izango dute usurbildarrek. Emaitzak, igande gauean bertan ezagutuko dira.

Herritarrei hitza emateko unea ailegatu da. Otsaileko azken asteburu hau, herri-galdeketa izango da Usurbilen. Hondakinen kudeaketari lotutako kontsulta burutuko da herrian.


Beste hauteskunde egunen antzera

Zein bilketa sistema nahi duen herritar bakoitzak, horixe da galdera. Hiru erantzun posibleren artean hautatu ahal izango da; atez ate, orain arteko edukiontzien sistema (lau edukiontzi) edo, orain arteko edukiontzien sistema gehi bosgarren edukiontzia organikoarentzat. Erantzun bakoitzeko bozka paper bat egongo da. Hiru erantzun, beraz hiru bozka paper aukeran.

BETEBEHARREKOA

“Bozka ematerakoan nork bere burua identifikatu beharko du”

Azken asteotan Udalak etxebizitzetara bidalitako gutunetan adierazten zaio herritar bakoitzari, otsailaren 27 eta 28ko kontsultan zer mahaietan bozkatzea egokituko zaion. Udalak sei mahai jarriko ditu, egokituko diren bost guneetan; bi mahai Kaxkoan, eta Santuenean, Aginagan, Zubietan eta Kalezarren mahai bana. Bozka ematerakoan nork bere burua identifikatu beharko du.



LARUNBATEAN ETA IGANDEAN, 10:00ETAN ZABALDUKO DIRA BOZKA EMATEKO GUNEA ETXEBIZITZETARA. 20:00ETAN ITXIKO DIRA.

Baliagarriak izango diren argazkidun honako dokumentuotako bat aurkeztu beharko da; nortasun agiria, pasaportea edo gidabaimena.

Aldez aurretik emandako bozkek notarioaren esku daude

Asteburuan burutuko den hiri hondakinen kudeaketari buruzko herri galdeketa dela eta, pasa den ostiralean amaitu zen otsailaren 27 eta 28an bozka eman ezin dutenek, botoa emateko zuten epea. Otsailaren 19an, arratsaldeko 14:00ak arte jasotako bozkek notarioaren aurrean prezintatutako boto-kutxa batean daude jada. Notarioaren zaintzapean egongo da aipatu kutxa, igandera arte. Otsailaren 28an boto-kutxa ekarriko du notarioak, eta aldez aurretik emandako bozkek dagozkien mahaietan banatu ostean, gainerako botoekin batera zenbatuko dira.

22 boluntario

Asteburu honetan, bozkatzeko guneak goizeko hamarretan zabalduko dira larunbat eta igandean, eta iluntzeko zortziak arte zabalik egongo dira. Baina 9:30etarako egon beharko dute egun bakoitzerako izendatuak izan diren mahaiburu, mahaikide eta ordezkoeak, mahaia osatu eta guztia prestatzeko.

Mahaiburuak udal langileak izango dira. Mahaikide gehienak, Udalak urtaririla amaieran egindako deialdiari erantzunez izena eman duten 22 herritar boluntario. Otsailaren 11n burutu zen ezohiko osoko bilkuran bestalde, gainerakoak, titular taldea osatzeko falta ziren beste bi herritar, eta 24 ordezkoko hautatzeko zozketa egin zuen udalbatzak, 18-65 urte arteko usurbildarren artean.

Bozkatzeko bi egun eta sei mahai

Egunak: otsailak 27, larunbata, otsailak 28, igandea.

Ordutegia: 10:00-20:00.

Sei mahai leku hauetan: Sutegiko erakusketa aretoan bi, eta Kalezarreko Haur Eskolan, Santuenea Kultur Elkartean, Aginagako Herri Ikastetxean eta Zubietako Lanbide Eskolan mahai bana.

Bozkatzeko bete beharreko baldintzak: 1992ko otsailaren 28an edo lehenago jaioa izatea eta Usurbilen 2010eko urtarrilaren 15ean edo lehenagotik erroldaturik egotea. Bozkatzeko nork bere burua identifikatu beharra du, nortasun agiri, gidabaimen edota pasaportearekin.

Herri galdeketa, otsailak 27 - otsailak 28

Emaitza loteslea izango da



Urtarrilaren 15a baino lehen Usurbilen errolatuak egon eta otsailaren 28an 18 urte beteak dituzten herritarrek izango dute bozka eskubidea otsailaren 27 eta 28ko galdeketa egunetan. Aukeran hiru bozka paper. Ohiko hauteskunde prozesua izango da.

Bakoitzak dagokion mahaira joan behar du, nortasun agiriarekin identifikatu, eta bozkatu. Mahaia hiru kidez osatua egongo da.

ZENBAKETA GARAIA

“Otsailaren 28an iluntzeko 20:00etan itxiko dira bozka lekuak. Gau horretan bertan ezagutuko dira emaitzak”

Mahaiburua udal langile bat izango da. Bi mahaikideak berriz, aldez aurretik boluntario gisa izena eman duten



IGANDEAN, 20:00ETAN AMAITUKO DA BOZKA EMATEKO AUKERA ETA ORDUAN HASIKO DA BOTO ZENBAKETA.

edota gerora, udalbatzak egindako zozketaren bidez mahaian egotea egokitu zaien herritarrek.

Otsailaren 28an iluntzeko 20:00etan itxiko dira bozka lekuak. Zenbaketa garaia hasiko da orduan. Gau horretan bertan ezagutuko dira emaitzak. Iazko maiatzeko osoko bilkuran erabaki beza-

la, emaitza loteslea izango da. Ez legeak Udala horretara behartzen duelako, bai ordea, udalbatzak konpromisoa hartu zuelako 2009ko maiatzean. “Legeak esaten du herri-galdeketa ez direla izango lotesleak, baina konpromiso hori hartu nahi izan zuen udalbatzak”, adierazi du udal idazkariak.

Hiru bilketa sistemen artean hautatzeko aukera

Iazko ekaina amaierako osoko bilkuran udalbatzak asteburuan burutuko den herri galdeketa edukia onartu zuen. Galde erantzunak ingurumen gaiekiko sentsibilitatea duen herri-eragile talde batek, aldez aurretik landu eta prestatutakoak dira. Kontsultarako testuak, hitzez hitz, honakoa dio:

1. Hondakinei buruzko 10/98 Estatuko Legeak, apirilaren 21ekoa, (BOE 1998ko apirilaren 22) 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udallerriek gaikako bilketa ezarri behar dutela dio, baita zati organikoari dagokionean ere.

2. Gero eta gehiago sortzen ditugun hondakinak ondo kudeatzen ez badira, ingurumenean eta osasunean kalte larriak eragingo dituen tratamendu oso garestiak beharrezkoak izando dira.

3. Bilketa sistemen arabera lortutako emaitzak ondorengoak dira:

Atez ate: %81,52 (Usurbil, 2009ko apirila).

Orain arteko edukiontzien sistema: %28,42 (Usurbil 2008).

Orain arteko edukiontzien sistema + organikoarentzat 5. edukiontzia: %36,68 (Mataró 2007),

(Iturria: San Markos Mankomunitatea, Usurbilgo Udala, Gipuzkoako

Foru Aldundia, Generalitat de Catalunya).

Sortzen ditugun hondakinetatik ahalik eta gehien birziklatu eta berrera-biltzea da helburua.

Zein bilketa sistema nahi duzu Usurbilerako?

1. Atez ate.

2. Orain arteko edukiontzien sistema (4 edukiontzi).

3. Orain arteko edukiontzien sistema + 5. edukiontzia organikoarentzat.

Otsailak 27-28

Bozkatu!



Ugurbil

gure etxea. gure herria. gure planeta.

Atez Ate dudipe!
BILGUNEA

www.dudipe.info



Oiloentzat janaria prestatzen

Kaixo lagunak! Usurbilgo Haur Eskolako 2 urteko haurrak gara eta kontu txiki batzuk kontatuko dizkizuegu!

Egunero, ohetik altxa, bapo-bapo gosaldu eta amatxok txukun txukun jantzen laguntzen digu. Motxila sorbaldan jantzi eta askotan, gure gustuko panpina besotan dugularik Haur Eskolara joaten gara; ez pentsa, guk ere “tranpa” bat edo beste egiten dugu!

Bertan; hainbeste maite ditugun lagunekin eta andereñoarekin elkartzen gara. Oso ondo pasatzen dugu gaztelu erraldoiak egiten, bazkari goxoak prestatzen, panpinak eta animalitxoak zaintzen... Gainera, andereñok guri hainbeste gustatzen zaizkigun ipuinak goxo-goxo kontatzen dizkigu! Hau zorzea hau!!!

A ZE SALTSA!!

“Poltsa atera genuenean ziztu bizian oilo pila bat hurbildu zitzaizkigun”

Aurreko batean, oiloentzako janaria prestatu genuen, a ze saltsa!! Mantala zintzo zintzo jarri, arto irina mahaiari zabaldu, ur poteak prestatu eta segituan hasi zen festa!!

Lehenik eta behin, arto irina urarekin nahastu genuen “hau gozamina hau, hondartzan ginela zirudien!” eta bolatxo batzuk egin genituen. Ondoren bolatxoak eskuarekin zapaldu genituen, plasta plasta!!! eta feriatan hainbestetan ikusitako taloen antzeko zerbait atera zitzaigun. Pentsa, batek baino gehiagok probatu



HAURRAK OILOENTZAKO JANARIA PRESTATZEN.



JANARIA PRESTATUTA, OILOENGANA ABIATU ZIREN.

genuen!!! Ummm, ze goxoa!

Taka-taka guk egindako taloak zabaltzen eta desegiten hasi ziren. Artxila mortxila! Irin eta ur gehiago bota eta lehen talo goxo-goxo ziren horiek, oiloentzako janaria izango zen masan bilakatu zen!

Sukaldari lanak amaitu ondoren, guztia poltsa batean jaso, eskuak eta gela garbitu eta oiloengana abiatu ginen. Gu, sokatik eutsita joaten gara kalean zehar paseatzen. “Kokororikoko, kikiririkiki, oilategian oilarra kukurrukuku!!”.

Ze pozik jarri ginen denak...

Oiloengana iritsi eta pare bat bakkarik zeuden. Baina poltsa atera genuenean ziztu bizian pila bat hurbildu zitzaizkigun. Ze pozik jarri ginen denak!

Oiloei guk prestatutako janaria asko gustatu zitzaie!! Irribarre handi batekin eta poltsa huts-hutsik genuela bueltatu ginen Haur Eskolara, berriro bixitan bueltatzeko asmoarekin!!

Aio pelaiio!

Haur Eskola, 2-3 urte

Inauterietako argazkiak, noaua.com webgunean

Udarregi ikastolakoak kalejiran ibili ziren Inauterietan eta ondoren erakustaldia eskaini zuten kiroldegian. Gure webgunean, www.noaua.com, “Argazkitegia” izeneko atalean hainbat argazki aurkituko dituzue.



INAUTERIETAKO IRUDI ASKO BILDU DITUGU “ARGAZKITEGIAN”.

Elikadurari buruzko mahaingurua ikastolan

Hitz-Aho Guraso Elkartek Hantolatu du mahaingurua: “Elikaduraren garrantzia eta elikadura nahasteak”. Otsailaren 25ean 17:00etan Ikastolako erdiko aretoan.

LATAILLADE     **ITURGINTZA**

GASA BEROKUNTZA MANTENIMENDUA ETA KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aristitxoa 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

Baxurde Txiki Triatloi Taldea, denboraldi berriaren atarian

Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea irteera gunean da jada, kirol urte berriko erronkei aurre egiteko prest. Ohi bezala denboraldiak bi zati nagusi izango ditu; asteburu honetan bertan hasiko diren duatloi probak batetik, eta jarraian, maiatzeko lehen astebururitik uda partera arte luzatuko diren triatloi proben txanda izango da. Taldekide bakoitzak lasterketei begira izan ditzakeen helburuen gainetik, Baxurde kideentzat euren arteko giro onari eustea izango da asmo nagusia, irailean Usurbilen antolatuko duten Baxurde Krossa proba indartzearekin batera.

Kirol denboraldi berria hasteko gogotsu eta irrikaz dago Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea, bilgunitik jakinarazi dutenez. Ez zaie ezer geratzen probei ekiteko, otsaileko azken asteburu honetan hasiko baitute duatloi denboraldi berria. Baxurde Txikitik jakinarazi dutenez, “iaz bezala, taldeko lauzpabost lagun jardungo dira mota honetako probetan”.

LEHEN LASTERKETA

“Duatloi proben denboraldia asteburu honetan hasiko da Mungian”

Arropa kolore berria estreinatu dute aurtengoan. Orain arteko laranja kolorea alboratu eta txuri beltzeko arropa erabiliko dute duatloi eta triatloi probetan. “Gure koloreak toki guztietan ikus daitezen irrikitan gaude. Ea zorterik dugun”, adierazi dute triatloi taldetik. Duatloi probetan taldekako sailkapenean postu txukun bat lortzea espero dute. Triatloi probetan kirolari bakoitzaren helburuak garrantzitsuagoak izan ohi direla adierazi dute Baxurde Txikitik. Beraz,



EUSKAL HERRIKO LASTERKETETAN PARTE HARTZEAZ APARTE, KANPORA ERE JOATEKO ASMOA DUTE; NIZA, ALPE D’HUEZ...

erronka pertsonalen txanda izango da maiatzetik aurrera.

Fitxaketa berriak

Aurtengorako hamabosteko taldea osatu du Baxurde Txikik. Javi Alonsok taldea utzi du, eta bi fitxaketa berri dituzte; Unai Korta eta Paco Rabano. Euskal Herrian antolatuko diren probetan parte hartzeaz gain, gure mugetatik kanpora ere joateko asmoa dute; Niza, Alpe D’Huez... Duatloi proben denboraldia asteburu honetan hasiko da Mungian, triatloiena maiatzeko lehen egunetan Senperen.

III. Baxurde Krossa irailean egingo da

Etxera bueltatuz, asteburuetakoko probetan parte hartu eta gogor entrenatzearekin batera, lehen bi edizioetan jendetsua izan den Baxurde Krossa antolatzeko lanei ekingo diete datozen hilabeteotan Baxurde Txiki triatloi taldekoek.

Aurtengoan, iraileko hirugarren asteburuan ospatu ohi den lasterketa indartu nahi dute. “Baxurde Krossaren antolaketa ere erronka handia da guretzat, hor ere gora egin nahi dugu, bai kantitatean nola kalitatean ere”, adierazi dute.

Aurreko denboraldia borobila izan zen

Hastear duten kirol urte berriaren atarian, atzera begira jartzea ere ez zaie askorik kostatzen Baxurde Txiki taldekoei, iazko denboraldia, euren esanetan, "oso arrakastatsua izan baitzen, dudarik gabe".

Izen propio bat izan zuen 2009. urteak; Mikel Otaegi talde kidearena. Duatloien Euskal Herriko zirkuituan bigarren postua lortu zuen eta distantzia luzeko Euskal Herriko txapelketa irabazi. Triatloi zirkuituan Otaegi izan zen 23 urtez azpiko onena. Mikelekin batera, Baxurde Txikik lortutako emaitza bikainaren erakusgarri honakoa, triatloi taldearen hitzetan: "taldeka dagokionez, duatloi zirkuituan zein distantzia luzeko Euskal Herriko txapelketan bigarren izan zen Baxurde Txiki". Aurtengoan ez legoke gaizki iazko markak errepikatzea.

GIRO ONEAN

Erronka eta helburuez aparte, taldeko giro ona osatzen ahaleginduko dira

Halere, taldetik jakinarazten dutenez, finkatutako erronka edo helburuen gaintik, ondo pasa nahi dute eta taldeko giroa ona izaten ahalegindu. "Lagun koadrila bat izan gaitezela gustatzen zaiguna are eta gustorago egiteko", hori Baxurde Txikikoen nahia hastear den denboraldirako.



DUATLOI ETA TRIATLOI ZIRKUITUA
OSATZEN SAIATUKO DIRA.

Duatloi denboraldia 2010

02/27: Mungia.
02/28: Barakaldo.
03/07: Basauri.
03/13: Oñati.
03/21: Barakaldo.
03/27: Durango.
04/17: Arrigorriaga.
04/18: Azkoitia.
04/24: Gernika.
05/01: Zornotza.
05/08: Ermua.
05/15: Bilbo.
10/02: Beasaingo duatloia.

Triatloi denboraldia 2010

05/22: Hondarribia.
05/23: Zierbana.
05/29: Bermeo.
05/30: Deba.
06/05: Ondarroa.
06/12: Zarautz.
06/13: Donostia.
06/19: Lekeitio.
06/26: Gasteiz.
06/27: Donostia.
07/18: Barakaldo.
07/18: Plentzia.
07/25: Barakaldo.

Usurbil FT-k

Bartzelonara joateko bidaia antolatu du

Aste Santuko oporraldian (apirilak 1-5) Bartzelonara joateko bidaia antolatu du Usurbil Futbol Taldeak. Bartzelona eta Athletic taldeek Nou Camp futbol zelaian jokatu duten neurketa ikusteko aukera izango da. Joan etorria autobusez egingo da eta bidaiariak hotel batean ostatua hartuko dute. Gainerako egunetako egitaraua, bidaiarako izena emandakoekin burutuko duten bileran adostuko dute. Izen ematea otsailaren 26an amaituko da; edonor joan liteke bidaia honetan. Bidaiari buruzko informazio gehiago: 943 369 515 (goizez, 10:30-12:00 artean, arratsaldez 18:30-20:00), edo Harane futbol zelaiko bulegoan.

Saizarren

birentzat afaria

Fernando Txueka izan da eskubaloi elkarteko errifa zozketako azken sariduna. Ohi denez, eskubaloi elkartekoek errifen zozketan parte hartzen duten herritar eta jatetxeak eskertu nahi dituzte.



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Table with 11 columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Rows show departure times for various bus lines.

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Table with 11 columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Rows show departure times for bus lines on weekends and holidays.

Table with 11 columns: Donostia, Urbil, Usurbil, Orio, Zarautz, Zarautz, Orio, Usurbil, Urbil, Donostia. Rows show departure times for bus lines during the Larunbat Gauetan period.

Table with 11 columns: Zarautz, Orio, Usurbil, Donostia, Donostia, Usurbil, Orio, Zarautz. Rows show departure times for bus lines during the Tren Orduetgia period.

Bezeroen arretarako bulegoa ☎ 902 54 32 10 www.euskotren.es @atcliente@euskotren.es



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Table with 2 columns: Irteera Usurbil, Irteera Astigarraga. Rows show departure times for bus lines between Usurbil and Astigarraga.

URNIETA-LASARTE-ZUBIETA-USURBIL

Table with 5 columns: USURBIL, SANTUENEA, ZUBIETA, LASARTE, URNIETA. Rows show departure times for bus lines between Usurbil and Urnieta.

Table with 5 columns: URNIETA, LASARTE, ZUBIETA, SANTUENEA, USURBIL. Rows show departure times for bus lines between Urnieta and Usurbil.

TSST autobusak ZUBIETA-LASARTE

Table with 2 columns: LANEGUNETAN, JAIEGUNETAN. Rows show departure times for bus lines between Zubietia and Lasarte.

BUS-TAXI

Table with 2 columns: COEILUAK, @COEILUAK. Rows show departure times for bus-taxi services to various destinations.

Agenda !

Otsailak 27 larunbata

- Kantu-jira kalez kale, 19:00.
Frontoitik irteera.

Martxoak 2 asteartea

- "Haur kabareta", antzerkia Sutegin
18:00etan. Soinurbil Musika Astea.

Martxoak 3 asteazkena

- Azkoitiko Musika Eskolaren trukaketa, 18:30ean Sutegin. Soinurbil Musika Astea.

Martxoak 4 osteguna

- Piano bat bertsoan. Euskal kanta zaharrak eta berriak. 19:00etan Sutegin. Soinurbil Musika Astea.

Goardiako farmaziak

Otsailak 25, osteguna

De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 26, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 27, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 28, igandea

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 1, astelehena

Gil, Nagusia 24 Lasarte

Martxoak 2, asteartea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 3, asteazkena

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 4, osteguna

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 5, ostirala

De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Martxoak 6, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 7, igandea

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Chucula farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)

*Usurbilen, soilik eguerdira arte

Usurbiltzen taldeko bazkide izateko aukera

Herrian produktu ekologikoak sustatzeko sortu den Usurbiltzen taldeak, bazkide izateko aukera eskaini nahi die herritar edota eragileei. Bazkide izateko interesa dutenek, Alkartasuna baseritarren kooperatiban jarri diren zerrendatan eman dezakete izena.

Geroz eta partaide gehiago dituen bilgunea da Usurbiltzen; duela hilabete gutxi produktu ekologikoen inguruan herrian sortu zen taldea.

Otarren sistema

Bitartekaririk gabeko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bultzatu nahi dute. Ildo horretan, otarren sistema jarri zuten martxan duela hilabete eskas.

Usurbiltzen taldeko kideek, orain,



MARTXOAREN 1 EAN BILERA DUTE USURBILTZENEN KIDEEK ARTZABALEN.

bazkide kanpaina jarri dute martxan. Urteko kuota 20 eurokoa izango da. Kobratzea, kontu korronte bidez egingo da. Informazio gehiago Alkartasuna kooperatiban bertan jaso daiteke.

Martxoaren 1ean, bilera

Hilabeteko lehen astelehenean bilatzeko ohiturari eusten jarraitzen dute Usurbiltzen taldeko kideek. Datorren hitzordua beraz, astelehenean, martxoak 1, 18:00etan Artzabalgo egoitzan, lehen solairuan.

Larunbat honetan Antxeta jatetxean, 1956ko kinto afaria

Antxetan egingo da afaria Otsailaren 27an larunbata. Izena alde aurretik eman behar da. Honako telefono hauetara deituz:
639 510 749 (Mikeli)
695 780 696 (Blanca)

Hip hop eta funky dantza ikastaroan izena emateko aukera

Bake Epaitegi ondoko lokalean hip-hop eta funky dantza ikastaroak ematen dira. Klaseak asteazkenean dira, 17:00etatik 19:00etara. Taldea osatzeko jendea behar da. 637 256 851.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olandegia - Gozategia

LABE-GOXO

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

ETXEBIZITZA

- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailan. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Volkswagen Touran bat salgai. 2005 urtean eresia, kilometro gutxi eta oso ondo zaindua, extra asko, gasolina. 14000 euro. 649435470
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiho nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
- Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera.

943361265.

- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Betei garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpizatetik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Urte asko herrian daramatzen emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduz: 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Mutil gazte bat eskaintzen da eraikuntza lanak, garbiketarako eta baserri lanetan aritzeko. 677593772
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketara lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziaduna. 606 800 837.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat

eskaintzen da. 685716774.

- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Baxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Otsailaren 20an txamarra marroi bat galdu nuen Olarrondon. Aurkitu duenak deitu mesedez telefono zenbaki honetara: 600768570.
- Bideo-muntaiak egiten dituen pertsona bat behar dugu. 943 374061.
- 160 luzera x 30 zabalerara x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Otsailaren 3an belarrirako bat galdu dut Usurbilen. Perla txuri bat dauka. Eskertuko dugu. 943365958
- Bi zilarrezko eraztun galdu ditut. Batek hiru delfin ditu eta besteak bat. Balio sentimental handikoa. 666177913
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Logelako armairu bat daukat salgai. Lau ateko armairua, bi urte ditu eta egoera oso onean dago. Interesatuak deitu 600369013 telefonora.
- Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. Interesatuak deitu 609099824 telefonora.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatu nuke Usurbil edo inguruan. Telefono zenbakia: 616260451
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberrieekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925.



Zorionak Osaba!

Muxu eta besarkada goxo bat Unax eta Danelen partez. Ze ondo pasako dugun igandeko ospakizunean! Ze guatxi!!!



Zorionak Janitz!

Otsailaren 19an gure etxeko poxpolinak 3 urte egingo ditu. Ondo pasa eta muxu handi bat Zuhaitz eta etxeko guztien partez!

JAIOTZAK

Gorka Villafila Roldan, otsailaren 15ean.

Maidar Scarlet Ruiz Abril, otsailaren 17an.

HILDAKOAK

Jose Ignacio Zabala San Sebastian

Otsailaren 21ean hil zen
89 urterekin, Santuenean



Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotakoak dira. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... Ekarri edo bidaltzeko azken eguna: [asteartea, eguerdiko 12:00etan.](#)
E-posta: erredakzioa@noaua.com

TXOTX!!



Txotxetik sagardoa
jarrailu izateko!

Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdletan IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hemani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 - USURBIL - Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com



ELUTXETA SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



ERRETEGIA • NEKAZALTURISMOA ARRATZAIN TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL



☎ 943 36 12 29

iruin
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astiazaransagardoak.com



AGINAGA Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginasagardotegia.com

PARTE HARTU HERRI KONTSULTAN

*otsailaren 27 eta 28an
mahaiak auzo guztietan
10:00etatik 20:00etara
ez ahaztu zure NAN edo EHNA*



herri kontsulta otsailak 27 eta 28an



Usurbilgo Udala